



# NAFARROAKO PARLAMENTUKO

## ALDIZKARI OFIZIALA

X. legegintzaldia

Iruña, 2019ko urriaren 4a

20. ZK.

### A U R K I B I D E A

#### E S A I L A:

##### **Interpelazioak, mozioak eta adierazpen politikoak:**

- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiatzen baitu Hazte Oir plataformak “Protege los niños del adoctrinamiento en ideología de género” izenarekin egindako kanpaina. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).
- Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arrakasta demokratiko gisa hartzen baitu Auzitegi Gorenak Francoren desobiratzeari buruz hartutako erabakia. Eledunen Batzarrak onetsia (3. or.).

#### F S A I L A:

##### **Galderak:**

- Galdera, legegintzaldi honetarako programa-akordioan berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko lege baterako aurreikuspenari buruzkoa. Mikel Buil García jaunak egin du (4. or.).
- Galdera, Brexitak Nafarroako enpresa-sarean izan ditzakeen eragin negatiboak leuntzeko neurriei buruzkoa. Mikel Asiain Torres jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plan bat eta Nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezartzeari buruzkoa. Ángel Ansa Echegaray jaunak egin du (5. or.).
- Galdera, lan-istripuen kopurua murrizteko aurreikusitako neurriei buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan eta ekonomian izan dezakeen inpaktuari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (6. or.).
- Galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako II. Azokari buruzkoa. Ainhoa Unzu Gárate andreak egin du (7. or.).
- Galdera, dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (7. or.).
- Galdera, bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (8. or.).
- Galdera, Pirinioetako hartz-populazioaren gaineko Piros LIFE nazioarteko foroari buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).

- Galdera, zebra muskuiluen izurria kontrolatzeko eta horren ondorioak leuntzeko jarduketa-planei buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (9. or.).
- Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutua Rozalejoko Markesaren jauregian kokatzeari buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (10. or.).
- Galdera, araudi indardunaren arabera ikastetxeetan unitateak irekitzeko behar den ikasle-kopuruari buruzkoa. María Roncesvalles Solana Arana andreak egin du (10. or.).
- Galdera, Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiak liburutegien jendaurreko ordutegia luzatzen kanpo utzi izanari buruzkoa. Patricia Perales Hurtado andreak egin du (11. or.).
- Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko dermatologiako arretari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, landa eremuetako arreta jarraitu eta urgentea bermatzeko gardien banaketari buruzkoa. Domingo González Martínez jaunak egin du (12. or.).
- Galdera, Nafarroako Gobernu departamentuen hizkuntza planei buruzkoa. Bakartxo Ruiz Jaso andreak egin du (13. or.).
- Galdera, Toki Administrazio zuzendari nagusiaren apirilaren 23ko 560/2019 Ebazpenetik heldu den 15/19 espedienteari buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (14. or.).
- Galdera, plangintza orokorreko mankomunitateei buruzkoa. Adolfo Araiz Flamarique jaunak egin du (15. or.).
- Galdera, Lekunberriko Iturriburun hutsik dauden etxebizitzetara buruzkoa. Maiorga Ramírez Erro jaunak egin du (16. or.).

**G SAILA:****Txostenak, deialdiak eta Parlamentuko informazioa:**

- Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren ebazpena, zeinaren bidez izendatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko senataria (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak izendatzea (17. or.).
- Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar duen kidea hautatzea. Hautagaitzak aurkezteko epearen luzapena (18. or.).
- Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia. Izendapena (18. or.).
- Nafarroan apustu-etxeak arautzeko ponentzia. Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsi du (19. or.).

---

**E saila:**  
**INTERPELAZIOAK, MOZIOAK ETA ADIERAZPEN POLITIKOAK**

---

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak zeharo arbuiazen baitu Hazte Oir plataformak “Protege los niños del adoctrinamiento en ideología de género” izenarekin egindako kanpaina.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak erabat arbuiazen du Hazte Oir elkarteak sustatutako idazkia, bai eta errespetuaren, berdintasunaren eta askatasunaren aurkako ideiak transmititzen dituen eta, hezkuntza afektibo-sexualari eta eskubide-berdintasunari dagokienez, hezkuntza-erkidegoa hertsatzea xede duen edozein ekimen ere.

2. Nafarroako Parlamentuak Hezkuntza Departamentuari eskatzen dio hartu beharreko neurriak har ditzan ikastetxeek gisa horretako materialak baztertu eta hezkuntza-erkidegoan banatu ez ditzaten.

3. Nafarroako Parlamentuak berresten du dibertsitate sexuala dela-eta errespetua aitortzen

duen hezkuntza afektibo-sexual batekiko daukan konpromisoa, Sexu- eta ugalketa-osasunari buruzko 103/2016 Foru Dekretuan, Emakumeen aurkako indarkeriaren kontrako 14/2015 Legean, LGTB+ pertsonen berdintasun sozialari buruzko 8/2017 Foru Legean edo berriki onetsitako Emakumeen eta Gizonen arteko Berdintasunari buruzko 17/2019 Foru Legean ezarritakoaren ildotik.

4. Eraso horien aurrean, Nafarroako Parlamentuak inoiz baino beharrezkoagotzat jotzen du Skolae programa babestea, harekiko zalantza gabeko konpromisoa eta haren erabateko garapena funts publikoekin sostengaturiko ikastetxe guztietan” (10-19/DEC-00058).

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**Adierazpen instituzionala, zeinaren bidez Nafarroako Parlamentuak arrakasta demokratiko gisa hartzen baitu Auzitegi Gorenak Francoren desobiratzeari buruz hartutako erabakia.**

*ELEDUNEN BATZARRAK ONETSIA*

Nafarroako Parlamentuko Eledunen Batzarrak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, ondoko adierazpena onetsi zuen:

“1. Nafarroako Parlamentuak, Nafarroako erakundeek Memoria Historikoko Politika Publikoaren alde hasitako lanaren bidetik, azaltzen du guztiz gogobetetzen duela Auzitegi Gorenak hartutako erabakiak, Francisco Franco diktadorearen gorpuzkiak desobiratu eta Erorien Haranetik eramatekoak, normaltasun demokratikoaren adierazle bat delakoan.

2. Nafarroako Parlamentuak adierazten du frankismoa gaitzesten duela eta diktaduraren

aitorpen edo goraiipameneko edo hura ikusgarri egiteko ekintza edo ikur oro errefusatzeko duela.

3. Nafarroako Parlamentuak jarraituko du Memoria Historikoaren Legea garatzearen aldeko apustu egiten, sinesten baitu hura beharrezkoa dela memoriarekin, justiziarekin eta erreparazioarekin konprometituta dagoen demokrazia baterantz aurrera egiteko” (10-19/DEC-00060).

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**F saila:**  
**GALDERAK**

---

**Galdera, legegintzaldi honetarako programa-akordioan berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko lege baterako aurreikuspenari buruzkoa.**

*MIKEL BUIL GARCÍA JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Mikel Buil García jaunak aurkeztutako galdera, legegintzaldi honetarako programa-akordioan berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko lege baterako aurreikuspenari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Ahal Dugu foru parlamentarien elkarteari atxikitako foru parlamentari Mikel Buil García, Legebiltzarreko Erregelamenduan xedatuaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuko lehendakariak Legebiltzarraren hurrengo Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Bizikidetzazko eta berdintasunezko legegintzaldi berritzaile eta aurrerakoirako 2019-2023 programa-akordioan jasota dator lege bat onestea berotegi-efektuko gasen emisioak murrizteko. Mina-Muga bezalako meatze-erazketako makroproiektuak berehala ezarriko direla ikusita, Gobernuak noiz planteatuko du lege hori?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Buil García

## **Galdera, Brexitak Nafarroako enpresa-sarean izan ditzakeen eragin negatiboak leuntzeko neurriei buruzkoa.**

*MIKEL ASIAIN TORRES JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Mikel Asiain Torres jaunak aurkeztutako galdera, Brexitak Nafarroako enpresa-sarean izan ditzakeen eragin negatiboak leuntzeko neurriei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari Mikel Asiain Torresek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Erresuma Batuko politikan azken hilabeteotan bizi den egoera politiko gatazkatsua –zeinaren oinarrian baitago Brexit-arekin zerikusia duen gutia eta Boris Johnson lehen ministro britaniarrak azken egunotan hartu dituen erabakiak direla-eta areagotu baita– kezka gero eta handiago sortzen ari da Europar Batasuneko estatuetan.

Modu bortitzean nahiz ordenatuan izan, britaniarren egungo erabakia irteera horretara bideratuta dago, eta eragina izanen du, handiagoa ala txikiagoa, Europar Batasuneko herrialdeetan eta, ondorioz, Nafarroan.

Erresuma Batuarekiko merkataritza-balantza ikusita, eta aintzat hartuta zer sektore ekonomikori eta enpresa zehatzi eraginen dien gehienbat, honako hau galdetu nahi diogu Garapen Ekonomiko eta Enpresarialeko kontseilariari:

Nafarroako Gobernua zer ari da egiten ahal den neurrian leuntzeko Brexitak Nafarroako enpresa-sarean izan ditzakeen eragin negatiboak?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Mikel Asiain Torres

## **Galdera, Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plan bat eta Nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezartzeari buruzkoa.**

*ÁNGEL ANSA ECHEGARAY JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ángel Ansa Echegaray jaunak aurkeztutako galdera, Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko plan bat eta Nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko plan bat ezartzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Gorteetako kide den eta Navarra Suma talde parlamentarioari atxikia dagoen Ángel Ansa Echegaray jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Lehendakariatzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko eta Barneko kontseilariak Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Gazte enpleguari eta ekintzaitzari buruzko berariazko planik eta Nafar gazte talentudunak Nafarroara itzultzeko planik egingen al du Gobernuak? Zer neurri ezarri nahi duzu?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Ángel Ansa Echegaray

## **Galdera, lan-istripuen kopurua murrizteko aurreikusitako neurriei buruzkoa.**

### *AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, lan-istripuen kopurua murrizteko aurreikusitako neurriei buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer neurri aurreikusi du lan-istripuen kopurua murrizteko?

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan eta ekonomian izan dezakeen inpaktuari buruzkoa.**

### *AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Brexitak Nafarroako enpresetan eta ekonomian izan dezakeen inpaktuari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak baloratu al du zer eragin izanen duen balizko Brexitak Nafarroako enpresetan eta gure ekonomian?

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako II. Azokari buruzkoa.**

*AINHOA UNZU GÁRATE ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Ainhoa Unzu Gárate andreak aurkeztutako galdera, Lan Autonomoaren Nafarroako II. Azokari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Osoko Bilkuran izapidetzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

Nafarroako Alderdi Sozialista talde parlamentarioari atxikitako Ainhoa Unzu Gárate andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau egiten dio Garapen Ekonomikorako kontseilariari, Osoko Bilkuran ahoz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak zer balorazio egiten du Lan Autonomoaren Nafarroako II. Azokari buruz eta zer egingen du kolektibo horren egoera hobetzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Ainhoa Unzu Garate

## **Galdera, dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, dokumentazioa euskarri berrerabilgarrietan bidaltzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkeztu dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Gobernu Irekiaren Atarian, <https://gobiernoabierto.navarra.es/eu/open-data/open-data-eta-spib> helbidean, honako hau irakur daiteke:

“Zer da SPIB?

Sektore Publikoko Informazioaren Berrerabilpena da Open Data ekimenaren helburu nagusia. Sektore publikoko informazioa eskuragarri, landugabe eta formatu estandar irekietan jartzea da, irisgarritasuna erraztuta eta berrerabilteza ahalbidetuta, bai partikularrei, bai enpresei, merkataritzako xedeetarako nahiz merkataritzakoak ez diren xedeetarako.

Sektore publikoak potentzialki berrerabilgarria den informazio ugari sortzen du, hala nola informazio soziala, ekonomikoa, geografikoa, estatistikoa eta abar. Informazio hori berrerabilteko oso erakargarria da, osatua, fidagarria eta kalitatezkoa delako.

Informazio publikoaren berrerabilpena eta birbanaketa datuak argitara ateratzen dituzten administrazio publikoen eta zenbait behar aseta ikusten dituzten herritarren eta enpresen mesederako izatea lortu nahi da”.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Gobernuko departamentuek Parlamentura – bai Parlamentuaren organoetara, bai parlamentari- igortzen duten informazio gehiena zergatik

igortzen da berriz erabili ezin diren formatuetan eta irekiak edo tratatzeko modukoak ez direnetan?

Gobernuak ba al du asmorik Parlamentura eta Parlamentuko kideei dokumentazio guztia itxia ez den formatu batean (funtsean, PDF edo gisakoe-

tan) igortzeko, horren edukia berrerabilia izan dadin?

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, bitarteko langileei gradua ordaintzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko ele-dun Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, idatziz erantzun dakizkion:

Atzo, Funtzio Publikoaren Mahai Orokorraren bileran, Lehendakariatzako kontseilariak informazioa eman zuen Gobernuak bitarteko langileek kobratzeari buruz, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak 2019ko ekainaren 20an emandako epaiaren ondoren, zeinak erantzuna ematen baitzion Iruñeko Administrazioarekiko Auzien 1. Epai-tegiak aurkeztutako judizio aurreko arazo bati.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Gobernuak asmorik al du bitarteko langileei graduko osagarria ordaintzen hasteko 2019ko azarotik aurrera?

Gobernuaren ustez langileei, oro har, gradu hori ordaindu aurretik aldaketaren bat egin behar-ko litzateke Nafarroako administrazio publikoen zerbitzuko langileen Estatutuan? Edo gradua ordaintzeko aski izanen litzateke, titulu juridiko gisa eta ukitutako pertsonaz haratago, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak emandako epaia?

Zer kostu ekonomiko izanen du, Gobernuaren kalkuluen arabera, gradua bitarteko langileei ordaintzeak 2019an zehar?

Indarreko gastu-aurrekontuko zer kreditu edo partidarekin finantzatuko da kostu hori?

Horretarako aurrekontu-partida edo -krediturik ez balego, aurreikusi al da Parlamentuan aurkeztea, langile horiei gradua ordaindu aurretik, dago-kion lege-proiektua, kreditu bereziari edo kreditu-gehigarriari buruzkoa?

Dagoeneko, erabaki al du Gobernuak gaiak ukituta egon daitezkeen bitarteko langileei atzeraeraginezko izaerarekin ordaintzea? Zenbat urtez eramanen litzateke atzera ordainketa horren eragina?

Zer kostu ekonomiko izanen luke atzeraeraginezko ordainketa horrek?

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique



## **Galdera, Pirinioetako hartz-populazioaren gaineko Piroso LIFE nazioarteko foroari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Pirinioetako hartz-populazioaren gaineko Piroso LIFE nazioarteko foroari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

Parlamentari naizen honek honako hau jakin nahi dut Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko kontseilari Itziar Gómez López andreak Pirinioetako hartz-populazioaren gaineko Piroso LIFE nazioarteko foroan –Lleidan egin zen– parte hartu izanari buruz:

1. Jardunaldi horietako ondorio nagusiak.

2. Ondorio horiek Nafarroako kasuari egokitzeari buruzko analisia.

3. Emandako dokumentazioa igortzea.

4. Nafarroako lurraldean helburu gisa hartzen den ale-kopuruaren proiektzioa, egutegi batean jasoa.

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, zebra muskuiluen izurria kontrolatzeko eta horren ondorioak leuntzeko jarduketa-planari buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, zebra muskuiluen izurria kontrolatzeko eta horren ondorioak leuntzeko jarduketa-planari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernu Landa Garapeneko eta Ingurumeneko Departamentuak idatziz erantzun dezan:

• Parlamentari naizen honek jakin nahi dut Nafarroako Gobernuak zer jarduketa-plan aurreikusi duen zebra muskuiluen izurria kontrolatzeko eta horren ondorioak leuntzeko.

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro

## **Galdera, Nafarroako Memoriaren Institutua Rozalejoko Markesaren jauregian kokatzeari buruzkoa.**

*BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Memoriaren Institutua Rozalejoko Markesaren jauregian kokatzeari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintuko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako Foru Parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduaren 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

Nafarroako Gobernua osatzeko akordio programatikoa jasotzen denez, Nafarroako Memoriaren Institutua "Marqués de Rozalejo" jauregian

kokatzeko asmoa dauka gobernuak. Hartara, jakin nahiko genuke:

– Memoriaren Institutuak bere eginkizunak bete eta ekimenak garatzeko behar dituen espazio fisikoen inguruko azterketa zehatzik badago? Hala bada, dokumentu horren edukia helarazteko eskatuko genuke.

– Zeintzuk dira arrazoiak honako kokalekua egokitzat jotzeko?

– Aztertu al dira beste aukerak? Zeintzuk? Zergatik baztertu dira?

– Ba al dago aipatu jauregia zaharberritzeko eta Memoriaren Institutuak izango lituzkeen beharretara egokitzeko proiektu zehatzik? Aurrekonturik? Finantziario planik? Hala bada, informazio eta dokumentazio guztia helarazteko eskatuko genuke.

– Kontuan hartuta "Marqués de Rozalejo" jauregia Iruñeko Alde Zaharreko erdigunean dagoela, izan al du Gobernuak Iruñeko Udalarekin inolako hartu-emanik asmoaren berri emateko eta egon litekeen bestelako alternatibaren bat aztertzeke? Hala ez bada, badauka horretarako asmorik?

Iruñean, 2019ko irailaren 20an

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, araudi indardunaren arabera ikastetxeetan unitateak irekitzeko behar den ikasle-kopuruari buruzkoa.**

*MARÍA RONCESVALLES SOLANA ARANA ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea María Roncesvalles Solana Arana andreak aurkezturiko galdera, araudi indardunaren arabera ikastetxeetan unitateak irekitzeko behar den ikasle-kopuruari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintuko jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

Geroa Bai talde parlamentarioko foru parlamentari María Roncesvalles Solana Aranak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, idatziz erantzun dakion:

Hezkuntzako kontseilariak adierazpen bazuetan ziurtatu du bidegabekeria bat izanen litzatekeela D ereduaren unitateak irekitzea 8 ikasle baino gutxiagorekin:

Parlamentari honek hauxe jakin nahi du:

Zenbat ikasle behar dira, araudi indardunaren arabera, Nafarroan G ereduaren unitate bat irekitzeko?

Zenbat ikasle behar dira (gutxieneko kopurua), araudi indardunaren arabera, Nafarroan landa-eskolan G ereduaren unitate bat irekitzeko?

Zenbat ikasle behar dira, araudi indardunaren arabera, Nafarroan A ereduaren unitate bat irekitzeko?

Zenbat ikasle behar dira (gutxieneko kopurua), araudi indardunaren arabera, Nafarroan landa-eskolan A ereduaren unitate bat irekitzeko?

Iruñean, 2019ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: María Roncesvalles Solana Arana

---

## **Galdera, Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiak liburutegien jendaurreko ordutegia luzatzen kanpo utzi izanari buruzkoa.**

*PATRICIA PERALES HURTADO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Patricia Perales Hurtado andreak aurkezturiko galdera, Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiak liburutegien jendaurreko ordutegia luzatzen kanpo utzi izanari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

**GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Patricia Perales Hurtadok, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkeztu du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Nafarroako Gobernuak liburutegiak jendearentzat irekitzeko ordutegia luzatzen dagokionez:

Zer dela-eta utzi dira luzatze horretatik kanpo Etxarri Aranazko eta Olaztiko liburutegiak?

Iruñean, 2019ko irailaren 24an

Foru parlamentaria: Patricia Perales Hurtado.

## **Galdera, Tuterako Osasun Barrutiko dermatologiako arretari buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, Tuterako Osasun Barrutiko dermatologiako arretari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martí-

nezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Tuterako Osasun Barrutiak jakinarazi du kanpoan kontratatuko duela dermatologia-zerbitzuaren parte bat.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Hurrengo lan-eskaintza publikoetan Tuterako Osasun Barrutiko dermatologiako lanposturik eskainiko al da?

Lanposturik eskaintzen ez bada, zer neurri hartuko da albait lasterren bermatzeko dermatologiako laguntza baliabide berekiekin emanen dela?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **Galdera, landa eremuetako arreta jarraitu eta urgentea bermatzeko guardien banaketari buruzkoa.**

*DOMINGO GONZÁLEZ MARTÍNEZ JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Domingo González Martínez jaunak aurkezturiko galdera, landa eremuetako arreta jarraitu eta urgentea bermatzeko guardien banaketari buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintu-takoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Txomin González Martínezek, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan.

Osasunbidea-Nafarroako Osasun Zerbitzuak osasun-laguntza jarraitu eta urgentea bermatzen du OOLLZ-Oinarrizko Osasun Laguntzako Larrialdi Zerbitzuaren eta guardien bidez Nafarroako landa eremuetan. Guardia horiek lanpostuan bertan egon beharrekoak nahiz lanpostuz kanpokoak edo mikro-guardiak izan daitezke.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Ba al dago ukitutako profesionalen artean guardiak banatzeko prozedurarik? Baldin eta guardiak banatzeko prozedura berariazkorik ez badago, nola bermatzen dira berdintasunezko tratua eta proportzionaltasuna guardia horiek banatzerakoan?

Ba al dago profesional batek egin dezakeen gehieneko guardia-kopururik?

Profesional batek egin dezakeen gehieneko guardia-kopururik ez badago, nola bermatzen da profesionalen atsedendialdiak eta osasunaren babesa betetzen direla?

Iruñean, 2019ko irailaren 23an

Foru parlamentaria: Txomin González Martínez

## **Galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuen hizkuntza planei buruzkoa.**

### *BAKARTXO RUIZ JASO ANDREAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Bakartxo Ruiz Jaso andreak aurkezturiko galdera, Nafarroako Gobernuko departamentuen hizkuntza planei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agintutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidaldez.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu-Nafarroa talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Bakartxo Ruiz Jaso andreak, Legebiltzarreko Erregelamenduko 186. artikuluan eta hurrengoetan xedatutakoaren babesean, eskatzen du Nafarroako Gobernuak honako galdera honi idatziz erantzun diezaion:

2017ko azaroan onartu zen 103/2017 Foru Dekretua, herritarrek Administrazioaren aurrean

euskaraz aritzeko onartuta duten eskubideari erantzuteko, Euskarari buruzko Foru Legean onartzen den moduan.

Ondoren, Foru Dekretua aplikatzearen ondorioz, Nafarroako Gobernuko departamentuek 2019-2021 aldirako Hizkuntza Planak onartu zituzten 2019ko otsaila eta uztaila bitartean.

– Zein da, departamentu bakoitzean, hizkuntza plan hauen ezarpen maila eta jarraipenaren egoera? Zeinetan egin da, dagoeneko, plantilla organikoan beharko liratekeen hizkuntza perfilen zehaztapena? Halakoetan, horren inguruko dokumentazioa helaraztea eskatuko genuke.

– Gobernuaren eta Departamentuen egitura aldatzeak nolako eragina izanen du? Plan berriak egin beharko dira? Hala bada, zein epetan aurreikusten da?

– Dekretuaren aurka aurkeztutako hiru helegiteen inguruan epaitegiek esango dutenak nolako ondorioak izan ditzake hizkuntza planen garapenean?

Iruñean, 2019ko irailaren 25ean

Foru parlamentaria: Bakartxo Ruiz Jaso

## **Galdera, Toki Administrazioko zuzendari nagusiaren apirilaren 23ko 560/2019 Ebazpenetik heldu den 15/19 espedienteari buruzkoa.**

*ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Bartzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, Toki Administrazioko zuzendari nagusiaren apirilaren 23ko 560/2019 Ebazpenetik heldu den 15/19 espedienteari buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hau aurkeztu dio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Toki Administrazioko zuzendari nagusiaren apirilaren 23ko 560/2019 Ebazpenaren bidez honako hau erabaki zen:

“Aiegiko Udalari errekeritza herriko argiteria publikoaren energia-zerbitzua berme osoz esleitzeko kontratua ofizios berrikusteko prozedura abiaraz dezan, ebazpen hau jakinarazten denetik hogeit egun balioduneko epean abiarazi ere, erabateko deuseztasun-arrazoak gertatzen direlako”

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dugu:

Zertan da, prozedurari dagokionez, apirilaren 23ko 560/2019 Ebazpenetik heldu den 15/19 Espedientea, zeinaren bidez Aiegiko Udalari errekeritzen baitaio herriko argiteria publikoaren energia-zerbitzua berme osoz esleitzeko kontratua ofizios berrikusteko prozedura abiaraz dezan erabateko deuseztasun-arrazoak gertatzen direlako?

Toki Administrazioko Zuzendaritza Nagusiak ba al daki ea Aiegiko Udalak inolako erabakirik hartu duen 560/2019 Ebazpenean errekeritzen zen ofiziosko berrikuspena abiarazteko?

Baldin eta Aiegiko Udalak ez badu ofiziosko berrikuspen-prozedura abiarazteko inolako erabakirik hartu, eta kontuan izanda emandako 20 egunak aspaldi igaro zirela, Zuzendaritza Nagusiak egintza judizialik abiaraziko al du toki entitateak adierazitako administrazio-isiltasunaren aitzinean?

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, plangintza orokorreko mankomunitateei buruzkoa.**

### *ADOLFO ARAIZ FLAMARIQUE JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

1. Izapidetzeko onartzea Adolfo Araiz Flamarique jaunak aurkezturiko galdera, plangintza orokorreko mankomunitateei buruzkoa.

2. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

3. Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko Adolfo Araiz Flamarique jaunak honako galdera idatzi hauek aurkezten dizkio Legebiltzarreko Mahaiari, izapidetu dezan:

Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Toki Administrazioaren Erreformatarako 4/2019 Foru Legea onetsi zuen aurreko legegintzaldian. Foru lege horren bidez, 213. artikulua gehitu zitzaion Nafarroako Toki Administrazioari buruzko uztaila-

ren 2ko 6/1990 Foru Legeari; horren bidez, plangintza orokorreko mankomunitateen eraketa eta funtzionamendua arautu zen eta mankomunitate horiek toki entitateen izaera dutela ezarri zen.

Mankomunitate horien erregulazioa izan zen Estatuko Administrazioak 4/2019 Foru Legea dela-eta adierazitako desadostasunetako bat, uste baitzuen Estatuaren eskumen osoak urratzen zituela.

2019ko maiatzetik hona Estatuarekiko negoziazio-fasean dira plangintza orokorreko mankomunitateen figuraren gaineko desadostasunak, ekidin nahi baita Estatuko Gobernuak 4/2019ko Foru Legearen aurkako konstituzio-kontrakotasuneko errekurtsioa aurkez dezan.

Gauzak horrela, honako hau jakin nahi dut:

Nafarroako Gobernuak Estatuaren ordezkari-tzaren aitzinean defendatuko al du toki entitate horiek –plangintza orokorreko mankomunitateak– sortzea Nafarroako toki araubidearen gaineko eskumen historiko bat dela, Nafarroako Udal Administrazioaren 1928ko otsailaren 3ko Erregelamenduan jada jasotzen zen bezala?

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Adolfo Araiz Flamarique

## **Galdera, Lekunberriko Iturriburun hutsik dauden etxebizitzetarako buruzkoa.**

### *MAIORGA RAMÍREZ ERRO JAUNAK EGIN DU*

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, Eledunen Batzarrari entzun ondoren, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

**1.** Izapidetzeko onartzea Maiorga Ramírez Erro jaunak aurkezturiko galdera, Lekunberriko Iturriburun hutsik dauden etxebizitzetarako buruzkoa.

**2.** Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

**3.** Nafarroako Gobernuari igortzea, Legebiltzarreko Erregelamenduko 194. artikulua agindutakoari jarraikiz, idatzizko erantzuna bidal dezan.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

### **GALDERAREN TESTUA**

EH Bildu Nafarroa talde parlamentarioko foru parlamentari Maiorga Ramírez Erro jaunak, Legebiltzarreko Erregelamenduan ezarritakoaren

babesean, honako galdera hau aurkezten du, Nafarroako Gobernuak idatziz erantzun dezan:

Lekunberriko Iturriburun hutsik dauden etxebizitzetarako dagokienez, honako hau jakin nahi dut:

Lehena. Nafarroako Gobernuko departamentuek horri dagokionez orain arte egindako jarduketan xehetasuna eta azalpena.

Bigarrena. Nafarroako Gobernuak etxebizitza horiek direla-eta darabiltzan aurreikuspena eta asmoa.

Hirugarrena. Ea Nafarroako Gobernuak bilera-rik edo harremanik izan duen Sareb-ekin, eta horrek zer jarrera erakutsi duen.

Laugarrena. Kasua bada, galdera honen hirugarren atalean aipatutako harremanen fede ematen duen dokumentazioaren kopia.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Foru parlamentaria: Maiorga Ramírez Erro



---

**G saila:**  
**TXOSTENAK, DEIALDIAK ETA PARLAMENTUKO INFORMAZIOA**

---

**Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkuraren ebazpena, zeinaren bidez izendatzen baita Nafarroako Foru Komunitateko senataria.**

Nafarroako Parlamentuak, 2019ko irailaren 26an egindako Osoko Bilkuran, Koldo Martínez Urionabarrenetxea jauna izendatu du Nafarroako Foru Komunitateko senatari, Espainiako Konstituzioaren 69.5 artikuluaekin, Nafarroako Foru Eraentza Birrezarri eta Hobetzeari buruzko Lege

Organikoaren 12. artikuluaekin eta Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 208. artikuluaekin bat.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

---

**Nafarroako Parlamentuak izendatu beharreko Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kideak izendatzea.**

Nafarroako Parlamentuko Osoko Bilkurak, 2019ko irailaren 26an egindako bileran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

“1. Ondoko pertsonak izendatzea Nafarroako Gardentasunaren Kontseiluko kide:

– Cristina Ibarrola Guillén andrea (titularra) eta Javier García Jiménez jauna (ordezkoa).

– Javier Lecumberri Urabayen jauna (titularra) eta Ainhoa Unzu Garate andrea (ordezkoa).

– Blanca Isabel Regúlez Álvarez andrea (titularra) eta Jabi Arakama Urtiaga jauna (ordezkoa).

– Adolfo Araiz Flamarique jauna (titularra) eta Maiorga Ramírez Erro jauna (ordezkoa).

2. Erabaki honen berri ematea Nafarroako Gobernuari eta interesdunei, eta Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea”.

Iruñean, 2019ko irailaren 26an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar duen kidea hautatzea.

### HAUTAGAITZAK AURKEZTEKO EPEAREN LUZAPENA

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean eginiko bilkuran, Eledunen Bartzarrak erabakia hartu ondoren, honako erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduko 37.1.bederatzigarrena artikularekin bat, hona erabakia:

**1.** Nafarroako Parlamentuak Nafarroako Kontseilurako izendatu behar duen kontseilukidea

hautatzeko hautagaiak aurkezteko epea **2019ko urriaren 17ko 17:00ak arte** luzatzea (10-19/ELC-00005).

**2.** Erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin agintzea.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## Gelazain nagusiaren burutza, merezimenduen lehiaketa bidez, betetzeko deialdia.

### Izendapena

Nafarroako Parlamentuko Mahaiak, 2019ko irailaren 30ean egindako bilkuran, erabaki hau hartu zuen, besteak beste:

Bukatu da gelazainen kidegoko funtzionarioen artean Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza betetzeko merezimenduen lehiaketa. Deialdia 2019ko apirilaren 5eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Ikusita epaimahai kalifikatzaileak igorritako lehiaketaren azken emaitza, eta deialdiko 7. oinarriarekin bat, ERABAKI DA:

**1.** Adieraztea jakitun dagoela aurkeztu den izan bakarrak lortu duen puntuazioari dagokionez, zeina gelazainen kidegoko funtzionarioen artean

Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusiaren burutza betetzeko merezimenduen lehiaketako epaimahai kalifikatzaileak bidali baitu.

**2.** Antonio Ansorena Urriza jauna Nafarroako Parlamentuko gelazain nagusi izendatzea sei urteko eperako. Interesdunak burutzaren jabetza hartu beharko du erabaki hau jakinarazi eta hamar egun naturaleko epean.

**3.** Agintzea erabaki hau Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean eta Parlamentuko web orrian argitara dadin.

Iruñean, 2019ko irailaren 30ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

## **Nafarroan apustu-etxeak arautzeko ponentzia.**

### *LEHENDAKARITZAKO, BERDINTASUNEKO, FUNTZIO PUBLIKOKO, ETA BARNEKO BATZORDEAK ONETSI DU*

Legebiltzarreko Erregelamenduaren 114. artikuluan ezarritakoa betez, agintzen da Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Nafarroan apustu-etxeak arautzeko ponentzia eratzeko erabakia, Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak onetsia. Hona erabakiaren testua:

“Nafarroako Parlamentuko Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordeak, 2019ko urriaren 2an egindako bilkuran, ondoko erabakia hartu zuen, besteak beste:

**1.** Lehendakaritzako, Berdintasuneko, Funtzio Publikoko, eta Barneko Batzordearen baitan Nafarroan apustu-etxeak arautzeko ponentzia bat eratztea.

**2.** Epe bat ematea, 2019ko urriaren 9ko 12:00ak bitartekoa, talde parlamentario eta foru

parlamentarien elkarte bakoitzak aipatu ponentziarako ordezkaria izenda dezan Legebiltzarreko Mahaiari zuzendutako idazki baten bidez. Idazki horren bidez orobat izendatuko da kasuan kasuko talde edo elkarteko parlamentari bat, beharrezkoa denean ordezkari haren ordezkari dena.

**3.** Behin ordezkariak izendatuta, Mahaiak erabakiko du ponentzia zein egunetan eratu eta lanean hasiko den.

**4.** Azterlana egiteko epea ponentzia eratu eta sei hilabetera bukatuko da.

**5.** Erabaki hau Legebiltzarreko Mahaiari jakinaraztea, beharrezkoa dena xeda dezan aipatu lantaldearen osaerari eta eraketari buruz”.

Iruñean, 2019ko urriaren 2an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

